# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA

### 1892

*AGINDUA, 2025eko apirilaren 16koa, Justizia eta Giza Eskubideen sailburuarena, zeinaren bidez ebazten baita hizkuntzagatik edo postuagatik bereizita dauden lanpostuak betetzeko berariazko lehiaketa, Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoan, Izapidetze Prozesal eta Administratiboko Kidegoan eta Laguntza Judizialeko Kidegoan.*

Ikusi da Justizia eta Giza Eskubideen sailburuaren 2025eko apirilaren 15eko Agindua. Agindu horren bidez, baliogabetu egiten da Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako sailburuaren 2023ko azaroaren 13ko Agindua, Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoetarako, hizkuntza eta/edo lanpostua dela-eta bereziturik dauden lanpostuak betetzeko berariazko lehiaketa behin betiko ebazten duena.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Behin betiko ebaztea Justizia Administrazioko Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko, Izapidetze Prozesal eta Administratiboko eta Laguntza Judizialeko kidegoetako eta eskaletako funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2023ko azaroaren 13ko Aginduaren bidez deitutakoa, eranskinean adierazten den moduan.

Bigarren artikulua.– Iraungitzat jotzea lehiaketa honetan parte hartu eta destinorik lortu ez dutenek aurkeztu dituzten eskabideak; beraz, ez dira kontuan hartuko hurrengo lekualdatze-lehiaketetan.

Hirugarren artikulua.– Lehiaketa honetan esleitu ez diren lanpostuak bete gabe uztea.

Laugarren artikulua.– Destinoa lortzen duten eta zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan eta familiakoak zaintzeko borondatezko eszedentzian diren funtzionarioei dagokienez, baldin eta ez badira sartzen lehiaketa honetako kidego edo eskalaren batera, 2023ko abenduaren 11n egin beharko dute kargu-uztea.

Bosgarren artikulua.– Lortutako destino berriaz jabetzeko epea hiru egun baliodunekoa izango da, kargutik kentzetik hasita, funtzionarioak herriz aldatu behar ez badu; zortzi egun baliodunekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen beste herri batera aldatu behar badu, eta hogei egun baliodunekoa, beste autonomia erkidego batera joan behar badu, honako kasu hauetan izan ezik: Kanarietako Autonomia Erkidegoa, Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoa, Ceutako Hiri Autonomoa eta Melillako Hiri Autonomoa; azken kasu horietan, epea hilabetekoa izango da. Bere karguaz jabetzearekin esleipendunak zerbitzu aktibora itzultzea lortzen badu, karguaz jabetzeko epea hogei egun baliodunekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agindu hau argitaratzen den egunetik hasita.

Plazaz jabetzeko epeei dagokienez, lanpostu bat zerbitzu-eginkizunetan betetzen duen funtzionarioentzat hauxe joko da «funtzionarioaren herritzat»: lanean diharduen herria.

Seigarren artikulua.– Esleitutako destinoei ezin izango zaie uko egin. Justizia Administrazioko Zuzendaritzak destinoen esleipenaren berri emango dio Justizia Ministerioari.

Zazpigarren artikulua.– Esleitutako plazak betetzen ari diren bitarteko funtzionarioek titularra lanpostuaz jabetzearen aurreko egun baliodunean utziko dituzte lanpostuok, titularrak lanpostuez jabetzearen ondorioz.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Giza Eskubideen sailburuari, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Bi aldizkarietan aldi berean argitaratzerik ez badago, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira epeak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 16a.

Justizia eta Giza Eskubideen sailburua,
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.

# ERANSKINA

## LAGUNTZA JUDIZIALEKO KIDEGOA

| Zk. | Interesduna | IFZ | Jatorriko organoa | Lanpostua / Dotazioa | Antzinatasuna | Profila | Puntuazioa, guztira | Esleitutako lanpostua/ dotazioa | Esleitutako lanpostuaren organoa | Udalerria |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | María Elena Olmos Zulueta | ***5367** | Gueñesko Bake Epaitegia (Idazkaritza Elkartea) | 680015/17 | 56,8388805 | | 56,839 | 680001/34 | Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra | Balmaseda |
| 2 | César Mardones Presa | ***2234** | Elorrioko Bake Epaitegia | 680005/43 | 41,4944295 | | 41,494 | 680015/25 | Sopelako Bake Epaitegia | Sopela |
| 3 | Ana Belén Alonso Lozano | ***1820** | Justizia Auzitegi Nagusia-Administrazioarekiko Auzien Sala - Bilbao | 605101/9 | 39,233321 | | 39,233 | 680002/9 | Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra eta Betearazpenekoa - Zerbitzu Orokorren atala | Getxo |
| 4 | Leire Pérez Merino | ***4511** | Beste autonomia-erkidego batekoa (Nafarroa) | | 2,7388815 | 8 | 10,739 | 680023/2 | Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra - KEBEZE atala - Bestelakoak | Barakaldo |

## IZAPIDETZE PROZESAL ETA ADMINISTRATIBOKO KIDEGOA

| Zk. | Interesduna | IFZ | Jatoriko organoa | Lanpostua / Dotazioa | Antzinatasuna | Profila | Puntuazioa, guztira | Esleitutako lanpostua/ dotazioa | Esleitutako lanpostuaren organoa | Udalerria |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Miguel Ángel Larrañaga García | ***5332** | Zigor-arloko ZULUP - Instrukzioko Lantaldea Donostia | 580047/3 | 46,1055545 | 8 | 54,106 | 580046/20 | Arlo Zibileko Kide Bakarreko Organoen ZULUP-Merkataritzako 2 zk. | Donostia |
| 2 | Francisco Javier Soto Labanda | ***8961** | Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra - Bestelako Zerbitzuen atala Donostia | 580058/8 | 45,2055435 | 8 | 53,206 | 580042/2 | Errenteriako Bake Epaitegia | Errenteria |
| 3 | María Nieves Ferradanes Rivero | ***9128** | Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra. Erregistroen eta Banaketen atala Donostia | 580057/3 | 36,266664 | 8 | 44,267 | Atzera eginda | | |
| 4 | Manuela Martínez Esquinas | ***3638** | Arlo Zibileko ZULUP - Barakaldoko Erregistro Zibila | 580038/4 | 39,1833215 | | 39,183 | 580017/3 | Bulego Fiskala-Barakaldoko Lurralde atala | Barakaldo |
| 5 | María Isabel Alcedo Moneo | ***2451** | Azpeitiko Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra | 580005/1 | 37,744427 | | 37,744 | 580004/36 | Kide Bakarreko Organo Mistoen ZULUP 1 zk. | Azpeitia |
| 6 | Antonio Dorribo Losada | ***6850** | EAEko Fiskaltza Nagusia - Arabako Probintziako Bulego Fiskala | 580019/4 | 32,1833315 | | 32,183 | 580022/3 | Zigor-arloko Kide Bakarreko Organoen ZULUP - Instrukzioko Lantaldea | Vitoria-Gasteiz |
| 7 | María Mercedes García Martínez | ***5866** | MUGEJU - Ministerioa | | 14,299997 | 8 | 22,3 | 580057/8 | Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra - Bestelako Zerbitzuen atala | Donostia |
| 8 | María Asunción Garoña Fernández | ***7798** | Tolosako Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra eta Betearazpenekoa - Zerbitzu Orokorren atala | 580005/30 | 9,977758 | 8 | 17,978 | 580046/5 | Arlo Zibileko Kide Bakarreko Organoen ZULUP - Erregistro Zibila | Donostia |
| 9 | José Manuel Román Hernández | ***4255** | Zigor-arloko ZULUP - Instrukzioko Lantaldea Vitoria-Gasteiz | 580022/1 | 14,7833255 | | 14,783 | Esleitu gabe | | |
| 10 | María Ainhoa Odriozola Perez | ***3568** | Zigor-arloko ZULUP - Instrukzioko Lantaldea Donostia | 580047/5 | 14,1499985 | | 14,15 | 580047/11 | Zigor-arloko Kide Bakarreko Organoen ZULUP - Adingabeen Lantaldea | Donostia |
| 11 | Felicitas Reyes Ballesteros | ***3204** | Kide Bakarreko Organo Mistoen ZULUP 3 zk. - Lan-arloa Eibar | 580001/21 | 5,711094 | | 5,7111 | 580005/2 | Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra eta Betearazpenekoa - Zerbitzu Orokorren atala | Eibar |
| | Verónica Vivo Andreu | ***3550** | Zigor-arloko ZULUP - Instrukzioko Lantaldea Barakaldo | 580039/5 | | | | Atzera eginda | | |

## KUDEAKETA PROZESAL ETA ADMINISTRATIBOKO KIDEGOA

| Zk. | Interesduna | IFZ | Jatorriko organoa | Lanpostua / Dotazioa | Antzinatasuna | Profila | Puntuazioa | Zuzenbidea | Bake-idazkaritzako zerbitzuak | Puntuazioa, guztira | Esleitutako lanpostua/ dotazioa | Esleitutako lanpostuaren organoa | Udalerria |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | José Antonio Molina Rodríguez | ***0976** | EAEko Fiskaltza Nagusia - Bizkaiko Probintziako Bulego Fiskala | 480010/4 | 26,211109 | 6 | 32,211 | 10 | | 42,211109 | 480007/61 | Ugao-Miraballesko Bake Epaitegia (Idazkaritza Elkartea) | Ugao-Miraballes |
| 2 | Iratxe Corral López | ***1187** | Zigor-arloko ZULUP - Instrukzioko Lantaldea Barakaldo | 480033/7 | 25,22221 | | 25,222 | | | 25,22221 | 480042/1 | Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra - KEBEZE atala - Bestelakoak | Barakaldo |
| 3 | María Consuelo Chamorrro Iglesias | ***8719** | Beste autonomia-erkidego batekoa (Aragoi) | | 25,0055455 | | 25,006 | | | 25,0055455 | Ez du betetzen nahitaezko euskarako 3. hizkuntza-eskakizunaren baldintza | | |
| 4 | María Estíbaliz López de Briñas Fuentes | ***2174** | Zigor-arloko ZULUP - Instrukzioko Lantaldea Vitoria-Gasteiz | 480021/1 | 24,1833315 | | 24,183 | | | 24,1833315 | 480016/1 | Arabako Probintziako Bulego Fiskala | Vitoria-Gasteiz |
| 5 | María Isabel Rodríguez Lucas | ***9933** | Betearazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesala - B atala (Instruk. eta Zigor arloa) Vitoria-Gasteiz | 480027/18 | 14,588883 | | 14,589 | | | 14,588883 | 480040/1 | Adm. Auzien Kide Bakarreko Organoen ZULUP | Vitoria-Gasteiz |
| | Marta Irigoyen Arruabarrena | ***9188** | Lan-arloko ZULUP Donostia | 480048/2 | | | | | | | Atzera eginda | | |
| | Nihad Ben Omar Akhlof | ***1457** | | | | | | | | | Baztertua, ez delako karrerakoa | | |